

2016an DOKTORETZA-BEKA ESKATZEKO FITXA

ERAKUNDEA Negozio-dibisioa Negozio-arloa	TECNALIA RESEARCH & INNOVATION INDUSTRIA ETA GARRAIOA Instrumentazioa eta Sistema Adimendunak / Fabrikazio Aurreratua
Beka-egonaldia non egingo den Probintzia/Eraikina	GIPUZKOA / Gipuzkoako Parke Zientifiko eta Teknologikoa - Mikeletegi pasealekua, 7- Donostia
Tutorea	Fernando Boto Sánchez Fernando Veiga Suárez

BEKAREN DESKRIBAPENA

Izenburua: Prozesu industrialen optimizazioa: hobetzeko neurtu, jakiteko neurtu.

Bekaren deskribapen laburra:

Superaleazio termoerresistenteetarako piezak fabrikatzeko prozesuak optimizatzea, datuak analizatzeko teknikak erabiliz (Machine Learning, Sensorica softwarea) eta aldagaiak optimizatuz, hala nola erreminten erabilera eta mekanizazio-segidak.

Bekaren deskribapena:

Gero eta aurrerapen gehiago egiten dira aeronautikaren sektorean, eta egoera oso positiboa da. Horregatik, zentro teknologikoei ahalegin handia egin beharko dute, oro har, gure industria sustatzen laguntzeko, eta bereziki, mekanizazioa sustatzeko. 2033. urtea bitartean aireontzien fabrikazioa bikoiztea espero da, eta mekanizazioaren sektore aeronautikoko ekoizpena handitzea.

Testuinguru horretan eta aeronautikaren sektorerako gero eta prozesu eta material berri gehiago egiten direla ikusita, proiektu honen asmoa da superaleazio termoerresistenteen mekanizazioa optimizatzea alderdi hauek barne hartuko dituen plataforma bat garatuz: *infrastructure* (mekanizaziotik etortzen diren datuak tratatzeko HW_SW), *Standard of machining test* (estandar bat sortzea, superaleazioen mekanizazioa analizatzeko), *Experimentation* (mekanizazioko prozesu alternatiboen analisia) eta *Simulation* (mekanizazio-prozesua simulatzea, fabrikazio-prozesuan materialek duten portaera termo-mekanikoari buruzko datuak ateratzeko).

Beka honek optimizazioa garatzen lagunduko luke, **mekanizazio-ahalmen txikiko materialen mekanizaziorako** eredu matematikoen bidez eta eredu horiek aeronautikako aleazio berrien **mekanizazioa optimizatze**ko plataformetan integratuz.

Eskakizunak:

Horretarako, eskakizun hauek beteko dituen profil bat bilatzen dugu:

- Titulua eta espezialitatea: Fisika-, matematika- edo informatika-ingeniaria, Konputazio Ingeniaritza eta Sistema Adimendunetako espezialitatea duena edo horri buruzko ezagutzak dituena.
- Hizkuntzak: ingelesa (maila ona idazteko eta maila ertain-ona hitz egiteko).
- Informatika: Java, C++, Phyton. Maila ona. Linux inguruneazagutzea.
- Balioetsiko da: esperientzia izatea zentro teknologikoetan eta/edo unibertsitatean.